

KUKUXUMUSUKO KUKLUBXUMUSU TXARTELAREN BALDINTZA OROKORRAK

1.- KUKUXUMUSU, S.L.-k (hemendik aurrera KUKUXUMUSU) KUKUXUMUSUko Kuklubxumusu txartela (hemendik aurrera “Kuklubxumusu” edo “Kuklubxumusu txartela”) sortu du. Kuklubxumusu txartelaren jabeak bezero leialtasuna lortzeko klub bateko kide izanen dira eta, hortaz, hainbat eskaintza, sustapen eta deskonturen onura jaso eta zozketetan parte hartzen ahalko dute eta beren lehentasun eta iritziez kontsultatuak eta KUKUXUMUSUko berritasunez informatuak izaten ahalko dira.

2.- Kuklubxumusu txartela 14 urtetik gorako pertsona fisiko orok eska dezake bizitokia Espainian edo Frantzian badu (bere nazionalitatea edozein den ere).

Frantzian bizi diren adingabeek beren guraso edo tutoreen baimena beharko dute, aldez aurretik, Kuklubxumusu txartela eskuratzeko, baldintza orokor hauen arabera. KUKUXUMUSUk baimen horren frogagiria eskatzeko eta baldintza hori betetzen ez duen orori txartelaren eskurapena ukatzeko eskubidea du.

Txartel eskaerak bezeroak baldintza orokor guztiak onartzea ekartzen du berarekin.

3.- Kuklubxumusu txartela eskuratzeko, bezeroak inskripzioa egin dezake Kuklubxumusun atxikirik dauden saltokien bitartez, horiek www.kukuxumusu.com web orriko “Kukuxumusu denda ofizialak” atalean zerrendaturik agertzen diren KUKUXUMUSU saltokiak izanik, prozedura honi jarraikiz:

Bezeroak ondoko hau egin beharko du: a) Kuklubxumusun atxikirik dauden KUKUXUMUSU saltokietan eskura dagoen inprimakinean eskatzen diren datuak eman; eta b) inprimakin hori Kuklubxumusun atxikirik dauden KUKUXUMUSU saltokietako batean uztea.

Eskaera beteta, KUKUXUMUSUk, erabat dohainik, Kuklubxumusuren txartela emanen dio bezeroari; txartelak kode jakin bat izanen du eta bezeroak Kuklubxumusu txartelen jabeai eskainiriko eskaintza, sustapen, deskontu eta abantailen onura jasotzen ahalko du. Txartela KUKUXUMUSUren saltokian berean emanen da bezeroak inskripzio inprimakina aurkezten duen unean.

Pertsona batek baino gehiagok ez dezakete eman email helbide berbera Kuklubxumusu txartela eskatzeko inprimaketan. Kide berrietako bakoitzak helbide elektronikoa pertsonala, banakoa, eman beharko du.

4.- Kuklubxumusu txartelaren jabe guztiak KUKUXUMUSUren online dendako erabiltzaile erregistratuei dagozkien eskaintza eta abantailen onura ere jasotzen ahalko dute. Horretarako, bere datuak dituen kupoia emanda, bezeroari email batean erabiltzaile izena eta pasahitza emanen zaizkio eta, azken horretaz, Kukuxumusuren online dendako erabiltzaile erregistratuen abantailen onuradun ere izaten ahalko da.

Denda fisikoetarako aurreikusten diren Kuklubxumusu txartelaren abantaila eta eskaintzak klubean atxikiriko saltokietan bakarrik aplikatzen ahalko dira, aldez aurretik Kuklubxumusu txartela, erosketa ordaindu baino lehen, aurkeztuz gero.

5.- Kuklubxumusuri eta haren funtzionamenduari buruzko edozein informazio eskaera edo edozein gorabeheraren konponketa posta elektronikoz jasoko da www.kukuxumusu.com/kuklubxumusu ataleko harremanetarako formularioan edo helbide honetan: kuklubxumusu@kukuxumusu.com

6.- Kuklubxumusu txartela galdua, lapurtua edo hondatua izanez gero, aipaturiko posta elektronikoko helbidean jakinarazi beharko du txartelaren jabeak.

7.- KUKUXUMUSUk baldintza orokor hauek aldatzeko eskubidea du, aldaketak KUKUXUMUSUren web orrian -www.kukuxumusu.com- argitaratuz.

8.- KUKUXUMUSUk Kuklubxumusuren eta Kuklubxumusu txartelaren funtzionamenduari bukaera bere aldetik emateko eskubidea du, kideei bi hilabete lehenago jakinaraziz aurreko atalean aurreikusiriko bidez, Kuklubxumusu txartelaren jabeek egiazko itxieraren eguna baino lehen eskuraturiko eskubideak ezertan ukatu gabe.

9.- Kideari Kuklubxumusun eta Kuklubxumusu txartelaren jabetzan baja emanen zaio idatziz jakinarazten duenean, 5. puntuari adieraziriko posta elektronikoko helbidean edo, ohiko postaz, helbide honetan: Kukuxumusu, S.L. (Legezko Departamentua), Marcelo Celayeta 75 NA A1, 31014 Iruñea. Halaber, KUKUXUMUSUk txartelaren jabe bati honelako kasu hauetan ematen ahalko dio baja bere aldetik: a) txartelaren jabeak baldintza orokor hauetan txartel horren jabe izateko finkaturiko beharrezko beharkizunetako bat galtzen duenean edo betetzen ez duenean; b) Kuklubxumusu txartela iruzurrez erabili denean; c) Kuklubxumusu txartelaren jabeak KUKUXUMUSUren markaren edo bere produktu eta zerbitzuen irudiaren aurkako erasoak egin duela jotzen duenean.

10.- Kuklubxumusu txartela eskatuz, bezeroak espresuki ematen dio baimena KUKUXUMUSUri paperezko inprimakiaren bitartez emandako bere datu pertsonalak, hala nola Kuklubxumusu txartela erabiltzetik eta aipaturiko abantailak eta onurak baliatzetik sor daitezkeen beste datu batzuk, fitxategi batean sartu eta tratatzeko.

KUKUXUMUSUk bezeroaren datuak merkataritza azterketetarako eta, bereziki, bezeroari KUKUXUMUSUk proposatzen dituen produktu eta zerbitzu, sustapen, zozketa eta jokoei buruzko informazioa emateko erabiliko ditu, baita KUKUXUMUSUren eskaintzak bezeroaren profilari egokitzeko ere.

Txartelaren jabeak datuak ikusi, zuzendu, aurkaratu eta ezabatzeko eskubideak erabiltzen ahalko ditu Kukuxumusu, S.L., Legezko Departamentura joz, ohiko postaz (helbidea: Marcelo Celayeta 75 NA A1, 31014 Iruñea) edo emailaz (helbidea: kuklubxumusu@kukuxumusu.com).

KUKUXUMUSUk txartelen jabeei buruzko datu pertsonalen isilpekotasuna gordetzeko eta klausula honetan aurreikusiriko helburuekin soilik erabiltzeko konpromisoa hartzen du, baita datuen aldaketa, galera edo trataera eta baimendurik gabeko sarrera saihesteko neurri egoki oro hartzekoa ere.

11.- Baldintza orokor hauek Espainiako Legeek agintzen dituzte eta parte-hartzaileek horren gaineko erreklamazio oro Iruñeko epaitegien jurisdikzioaren mende egonen dela onartzen dute.